



NEKEZ BILDU ETA AISE BANATZEN ZITUENARENAK

ANDU LERTXUNDI

Gizona! Gizona!

Abisua jaso nuen. Nire diskurtso ausart tanke-
rakoak huts egiten zuen nonbaitetik, Pitzadurak
aurkitu nahi luzatu berria nuen hitz jarioari, eta ja-
rria hondorik gabeko putz izugarria bihurtzen
zitzaidan.

*Barka, Koldo... Baina ezkeraren papera...
Zein ezker, ordea?.*

Paper bat hartu kirio urduriez eta lauki bat
marraztu zuen *Koldok* paper zimurtuan. Laukia,
gero, gurutze batez zeharkatu zuen, lau karratu
osatuz. Karratu bakoitzean, eskuina eta ezker,
abertzalea nahiz espainola. Ezker abertzaleari
zegokion karratuan galdera ikur nabaria.

*Eskuin homologablea badaukagu. Ezker ho-
mologable bat behar dugu. Geure alderdi sozialista
bat.*

Zigarroari kea zupatu, eta ondoren:

¡Gizona! ¡Gizona!

Horrela ezagutu nuen *Koldo*, Errenterian, adiskide zenbait biltzen hasi ginen tertulia batzutan. Neu, idazle hasi berri, nola iritsi nintzen tertulia hartara, auskalok daki. Baina han nengoen. Ausart hasieran. Gero eta apalago ondoren.

Tertulietako anfitrióna, etxekoandre, ama, lekuko eta beti zerbitzari fin izaten genuen Miren Gezalak, etendura arintzeko asmoz:

Whisky piskat?

Gauez, autobidean etxerantz, sarritan bueltatu nintzen neure buruarekin haserre: *Koldo Mitxelena*ren aurrean beti ohartzen bait nintzen gorrotatzen nuen adanismoan erortzen nintzela behin eta berriro, modurik estupidoenean. Eta autobideko peajeko gizonak inoiz harrapatuko ninduen nire buruari erritan:

Ez ote duk isiltzen ikasiko?

Peajekoak, ordu txiki haietan, noski baino noskiago pentsatu behar zuela seko eginda nengoela burutik, blai eginda nengoela sabel aldetik.

Ezer itxurakorik?

Epaimahaietan *Koldorekin* lana egin ahal izateko aukera aparta izan nuen sarritan. Urtebete botako genuen, agian, elkar ikusi gabe, eta sariketa literarioen batek batzen gintuenean, *Koldok*:

Ezer itxurakorik?

Gure ustez sariketa hartara aurkezturiko nobela hoberena «Abuztuaren hamabosteko bazkalondoa» zela. Eta beste erremediorik gabe *Koldo Mitxelena*ren begietara jartzen nintzen, ea zer irakurriko hain biziak zituen haietan. Ezagutu dudan gutxian, esan dezaket orijinal guztiak, txarrenek ere barne, irakurtzen zituela goitik behera, aztertzen zituela linguistikoki eta, batez ere, literatioki. Eta beti hasten zen apustuka:

Ea nongoa den. Ea nor den.

Plika ireki aurretik egiten zituen kabalak: euskera, nahiz batua izan, Donostialdekoa. Idazleak gaztea behar du izan. Seminariotik pasatakoa. Ausarta. Estilo horren jabe izateko literatura ikasia du tipoak...

Ezaugarri guzti horien jabe zitekeen norbaiten bila hasten ginen ondoren.

Eta orduan konturatzen ginen *Koldok* idazle hasi berrienak ere primeran ezagutzen zituela, ongi kokatzen zuela bakoitza bere tokian.

Lutzear-i behin entzun nion bezala...

Nor da Lutzear?

Gure ezjakintasun nabariari, erantzun gogorra:

Gizona! Gizona!

Ezin iritsi denera eta ilusio bizia zuen «Egan» aldizkaria suspertzekoa. Salamankatik bidali zizkigun gutun batzuk gordetzen ditugu haren irrikia-rreren lekuko, gure erantzun eskaxaren damugarri. Ez genuen jakin gudan ipini zuen konfidantzari erantzuten:

Zer gertatzen da?. Ez al zaizue «Egan» interesatzen?.

Aitzakiak luzatu genizkionean, *Koldok*:

Epe motzera jakatzera ohitzen ari zarete eta hori beti izan dugu harlosa.

Esaldi bera, hitzez hitz, geratu zaigu guri harlosa bezala: epe motzerako lanetan itota, hark euskalgintzari luzatu zion sarobearen sendotasunik gabe. «Garaien zeinua», Vatikanoko bigarrenetik *Koldok* oso ongi jaso zuen espresioaren arabera.

Eta orain, *Koldo* falta zaigunean, *Koldoren* ikuspegia falta zaigu, egoera zenbait tajutu lituzkeen gizona falta zaigu. Umezurtz geratuak gara, Lizardi hildakoan Aitzolek ere aitortu zigun bezala.

Eta umezurtzetik irteteko modu bakarra geure buruen jabe izatea denez, oroimenak lagun diezai-gula ahaleginean, beti ere «gizona, gizona!» hura akuilu.